

«Etxebizitza eta familia gure kulturetan dauden bi jainko ukiezin dira»



Leire Milikua Larramendi

Arkitektoa eta Erredakzio-kontseiluko kidea

Jasotze data: 2016-01-15

Onartze data: 2016-02-15

Irati Mogollón García eta Ana Fernández Cuberorekin solasean

Irati Mogollón García, soziologa. Ikertzaile multitasking gisa definitzen du bere burua. Egunerokotasunaren soziologian eta ekonomia feministan aritua, bizitza sostengatzeko proiektu kolektibo-kolaboratiboetan hartzen du parte, baita horiek aztertu ere. Egun, ikerketa aktibista edo militantearen planotik taldeen garapenerako tresna kolektiboak sortzeko bidean egiten du lan, zenbait talderekin.

Ana Fernández Cubero, arkitektoa. Ikertzaile *bio-geldoa*. Hirigintza ekologistan urte luzez aritua lurralde-antolaketatik hasi eta bizikleta tresna politiko gisa erabiltzeraino. Desazkundetik eta feminismitik abiatzen da haren jarduna, eta berrerabilera, birgaitzea, jakintzaren demokratizazioa, ekoefizientzia... terminoak dira haren lanen ezinbesteko premisak.

=====

Arquitecturas del Cuidado deituriko ikerketa-prozesuan murgilduta daude biak, bakoitzaren diziplinak uztartuz eta osatuz. Zahartzaroan abiatutako etxebizitza kolektiboen azterketa du xede Emakunderen laguntza jaso duen proiektu honek, eta zaintzak, etxebizitzak eta egunerokotasunetik abiatzen diren eraldaketa sozialak hartu dituzte hizpide adineko pertsonak bihurtuz eraldaketarako subjektu politiko.

Zaintzaren Arkitekturak. Izenburu horri jarraikiz, zaintzen inguruko arkitektura-tipologian bilduma bat

espero duenik egon daiteke, baina hiru ardatz ditu zuen lanak ordea: arkitektura, soziologia eta generoa.

Tipologiarena bada buruan darabilgun ideietako bat, gure ikerketaren produktuan (liburuan) publikatuko ditugun fitxa modukoetan jasota agertuko baitira proiektuen tipologiak hain zuzen ere. Horietatik haratago goaz ordea, gure helburua dagoenaren gaineko deskribapena egitea baino gehiago, helduaroko bizitzaren zaintzaren eta jendartearen hezurramitzen duten gorputz ezberdinen arteko interakzioak aztertzeko helburua da gurea.

Bi ahalduz-eremu planteatzen dituzue zuen ikerketan: subjektu edadetua eta etxebizitza komuna.

Bai eta ez. Subjektu edadetua barik, beren baldintza material, historiko eta subjektiboez jabetzen direnen prozesuak dira mahaigaineratu nahi ditugunak. Kasu honetan zahartzaroaren subjektuen iruditegiarekin apurtzen duten kolektiboak aztertu nahi genituen; gaixotasunez gainezka diren subjektu pasiboetatik beren bizitzaren azken fasean gizartean eta beren bizitzetan zeresan handia duten subjektuak izaterainoko saltoa ikertu.

Etxebizitza komuna ikerketaren erdigunean ipintzeari dagokionez, etxebizitza komuna baino gehiago, etxebizitzan historikoki ulertu, azpiratu eta pribatizatu diren jarduerak eta espazioak politizatu egiten dituzten espazioak hartu nahi izan ditugu. Hain zuzen ere, horien berrantolaketa, politizatze eta birbanatze kolektiboa diseinatzen edo egikaritzen dabiltzan espazio zein kolektiboak aztertuz. Adibide bat ipintze aldera, kozinatzea eta sukaldea XIX. mendetik pribatizatu eta feminizatua izan den jardueraren eta espazioa dugu. Horri aurre eginez, sukaldea eta sukaldatzea kolektibizatu duen talderik bada, esate baterako, Elkarte



Iruadiaren egilea ~ Pirati

edo Txoko batean gauzatzuz jarduera hura, guretzat «eremu domestiko baten politizazio eta kolektibizazioa» da eta, beraz, gure Zaintzaren Arkitekturen barnean txertatuko genuke ikergai gisara.

Horren harira, prozesuaren helburuetako bat ikerketa militante aktibo eta konprometitutik abiatuta, arkitektura biguna eta zurruna (Jarris, 2015) Zaintzaren birkonfigurazio eta birsorkuntzarako espazio estrategiko bezala erabiltzen duten praktika inspiratzaileen identifikazioa gauzatzea da: zer-nolako emaitzak jaso dituzue gaurdaino?

Alde batetik, informazioa tantaz tanta eskuratzen goazela esan beharra dago. Ez gara gazteak, euskaldunak, emakumeak edo langabetuak ikertzen ari, gure kolektiboa 65 urtetik aurreragoko pertsonak, haien etxebizitzak eta bizimoldeak dira. Horrek azpiraturiko edo ikusezin bihurturiko aldagai gehiegi batzen ditu eta, beraz, kontaktazio- eta detektatzelana nekeza izatea dakar. Hau guztia esanda, oro har, denetik topatzen ari garela aitortu beharra dago: elkarrekin bizitzera joan diren bi lagun/emakume heldu (bata alarguna eta bestea bikote gabea), teknologiarik puntakoena duten milioi bat euroko etxeak (sensorizatua, monitorizatua...), udalen etxebizitza komunitarioen eraikin-formatuak (Bermeo, Donostia...), baita *cohousing* gisara ezagutzen diren eredu anglosaxoietatik datozen etxebizitza kolektiboa eraikitzeko asmoz dabiltzan zaharren taldeak ere (Eguntentia-Aurora, Housekide, Ixileku...).

Eta zuek nola definitzen dituzue bi arkitektura motok?

Arkitektura barik azpiegitura gisara izendatzen ditugu. Jarris (2015) ideietatik partiturik, oro har, gure ikerketetan bi azpiegituren bileraz aritzen gara. Azpiegitura biguna

egitura edo gorputz soziala sostengatzen duen azpiegitura litzateke, harreman, balio-sistema, antolaketa-eredu, interakzio, taldearen ezaugarri propio eta abarren diseinu eta eraketari begira ipintzen gaitu. Bestalde, azpiegitura zurrunak historikoki aztertu izan ditugun azpiegiturak lirakeke, bizitzaren materialtasunari gehiago erreparatuko lioketenak, hala nola diseinua, altzariak, espazioaren banaketa, muga arkitektonikoak, auzoaren eta espazioaren arteko interakzioak...

Espazioez eta giza harremanez gain, beste objektu bat ere jartzen duzue azterketaren erdigunean: giza gorputza.

Gorputz ezberdinez mintzo garenean, hiru gorputz ditugu buruan: gorputz espaziala (diseinua, bertan diren materialak, ikuspegi arkitektonikoa, urbanistikoa...), gorputz soziala (pertsonen antolaketa, harremanak, egituraketa familiarrak, lagunartekoak...) eta norbanakoaren gorputza (norbanakook hezur-haragizko egiten gaituen gorputzaren ezaugarriak, eraldaketak, baldintzak, sentipenak, biografiak...). Badira urteak zenbait ikerketa-disziplinatan (soziologia, antropologia, historia...) eta nagusiki feministon korronteetatik abiatuta gorputzari hezur-haragizko eskola bat izatetik haratagoko funtzioa zein izatea eskaintzen zaiola. Gorputza gure bizitzaren ispilua da, egokitutako klase sozialaren, etniaren, generoaren, une historikoaren adierazgarri. Hori dela-eta, aipatutako korronteetatik uste da edo uste dugu beharrezkoa dela, noski, ikerketa bat gauzatzean subjektuaren gorputzari erreparatzea, zeren, hala egin ezean, informazioaren atal handi bat errefusatzeko ariko garela ondoriozta baitaiteke. Gorputzak, gainera, zahartzen goazen heinean presentzia handiagoa daukala uste dugu, munduaren diseinu heteropatriarkal eta androzentrikoan

guztia subjektu Txuri, Burges, Heterosexual, Heldu eta Gizonezkoaren arabera eraikia baitago. Ondorioz, ez dago lekurik askotariko mugikortasuna duten gorputzentzat, beren bizitza produkzio kapitalista (enplegu + auto bidezko mugikortasuna) eta kontsumo kapitalistatik (dendak, terrazak...) haratago planteatzen duten herritarrentzat. Hargatik, interesgarria eta iraultzailea iruditzen zaigu «beste gorputz horientzat» eginda dauden herri, hiri eta etxeetan hausnartzea zein alternatibak planteatzea gazteek, gurpil-aulkidunek, zaharrek, bizikletek, lagun taldeek, emakumeek, haurrek, pilotarekin jostatzen direnek, kalean kontsumitu gabe bazkaldu nahi dutenek... ere espazioa izan dezaten bertan.

Zuen ikerketako hirugarren fasea bukatu berri duzuen honetan, behin EAEko esperientziak ikertuta, kanpora joatekotan zarete ikerketaren laugarren faseari ekitera. Zein da aurreikusita duzuen ibilbidea? Zerk eramango zaituzte toki konkretu horietara?

Ene! Pila bat dira: Stockholm, Kopenhage, Hanburgo, Bochum, Dortmund, Nurenberg, Paris... Oro har, Danimarkan, Suitzan, Alemanian, Holandan, Parisen etxebizitza-kolektiboen mugimendua oso zabaldua dago, mota askotakoak daude bertan eta horietatik zaharretara edo atentzioa gehien eman digutenetara jo dugu. Kontuan hartu diren aldagaiak honako hauek izan dira, eta, horien arabera, konbinazioak egin izan ditugu: etxea zaharrena izatea soilik, etxeak belaunaldiartekoak izatea, emakumezkoenak soilik diren etxeak, etxeak hirietan egotea, etxeak hirien kanpoaldean egotea eta sareturiko etxe-proiektuak izatea (adibidez, Beginenhof).

Lanari amaiera eman orduko oraindik beste hiru fase aurretik dituzuen arren, elkarrizketari amaiera emateko, zeintzuk lirateke orain arte gauzatutako azterketaren gaineko zuen hasierako intuizio edo ondorioak?

Ondorio-zaparradatxo bat botatze aldera: azpiegitura bigunen eta zurrunen arteko oreka ezinbestekoa da, horietariko bati erreparatu izan ez zaionean, proiektua erori egin delako. Gainera, oro har, arkitektura eta diseinuaren lilurakjan egiten du harremanei eta zaintzari begirako beharra, eta ondorioak lazgarriak dira proiektuarentzat. Zaintzaz kolektiboki eztabaidatzea hamaika oparotasun sortzen ditu, bidea nekeza izan arren, horrelako proiektuetan pertsonak behartu egiten dira beren bizitzako fase zehatz horretan beren nahi eta beharren inguruan hausnartzera, kolektiboki zer emateko prest dauden eta ez dauden ikusaraztera eta hori guztia espazialki nola osagarritu daitekeen hausnartzera. Horrek ahalduntze-prozesuak hamaika erpin izatea dakar, plano indibidualean, plano espazialean, plano kolektiboan... Bestalde, aurreikusten ari gara etxebizitza eta familia gure kulturetan dauden bi jainko ukiezin direla, daukagun kultura dela medio, esan dezakegu zalantzan jartzten ez diren botere-harreman eta zapalkuntzez beteriko feudoak direla. Horrek ondorio latzak ditu; izan ere, denborarekin etxe homogeneoak ditugu bizitza eta behar heterogeneoz gainezka dauden jendarteetan, eta horiek aldatzeko grina eta balentriarik ezak oztopo handiak sorrarazten ditu eraldaketa sozialerako.

===